

FAMILIA KONEKTATUA

Familia Konektatua plataforma digital bat da, adinekoek eta haien familiek modu errazean eta seguruan elkarrekin komunikatzeko aukera ematen duena. Bideo-deiak, mezuak eta oroitzapenak partekatzeko aukera eskaintzen duen sistema simple baten bidez, adinekoak bakarrik ez sentitzeko, eta familia-kideek elkarrekin egon daitezke, nahiz eta teknologia berriekin esperientzia txikia izan. Horrez gain, zentroek eta egoitzek plataforma hau erabiltzeko aukera dute, bizilagunen artean harreman hobek izateko eta zaintza lana errazteko. Horrela, adinekoek gehiago erabiltzen dute teknologia, eta familiak hurbilago sentitzen dira, elkarrekin komunikatzeko aukera izanik.



Plataformak Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) ere laguntzen ditu, batez ere GJH 3 (Osasuna eta Ongizatea), GJH 10 (Desberdintasunak Murriztea), GJH 11 (Hiri eta Komunitate Jasangarriak), GJH 16 (Bakea, Justizia eta Erakunde Indartsuak) eta GJH 17 (Aliantzak Helburuak Lortzeko). Horri esker, familia-harremanak indartu eta desberdintasunak murriztu daitezke, gizarte inklusiboago bat sortuz, adinekoek eta senitartekoek elkarrekin harreman sendoak eta osasuntsuak izanik. Familia Konektatua plataformak, halaber, komunitate eta erakundeak elkarlanean aritzea bultzatzen du, helburu komunak lortzeko eta adinekoen ongizatea eta sozializazioa hobetzeko. Plataforma segurtasun handiz erabiltzen da, eta erabiltzaile guztien pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa bermatzen dira. Familia Konektatuak erabiltzaileei laguntza teknikoa eskaintzen die, eta haien zaintzaileek edo familiak, jakin gabe ere, beren senitartekoekin hurbil egon daitezke, ingurune seguru eta fidagarri batean.